



IKASLEEI ZUZENDUTAKO “BERGARA BIZI” BONU-LAGUNTZA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2022/07/18an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022/09/16an

1. artikulua.- Xedea

Ordenantza honen xedea da ikasleen beharrianetarako erosketak egiteko udalaren laguntza ekonomikoak arautzea.

2. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezke eskola-umeen beharrianetarako erosketak: arropak, oinetakoak, kirol materiala, eskolako materiala (hiztegi, motxila, estutxe, margo...), material informatikoa, betaurrekoak eta lentillak, etab., baina soilik Bergarako komertzioetan egin bada erosketak.

3. artikulua.- Aurrekontua kontsignatzea

Dirulaguntzak gastu publikotzat joko dira, eta eraginkorrak izango dira, baldin deialdi bakoitzean aurreikusten den aurrekontu-kreditua nahikoa eta egokia bada.

4. artikulua.- Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta haren onuradunak

Eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean:

- DBE edo/eta GLL laguntzen onuraduna izatea.
- Onuraduna izango den ikaslearen gurasoren bat Bergaran etengabe erroldatuta egon izana gutxienez azken sei hilabeteetan. Udalak hau ofizioz egiaztatuko du.
- Bere kargu izatea 3 eta 18 urte bitarteko (biak barne) pertsonak, laguntza-deialdia egiten den urtean beteta.
- Derrigorrezko eskolaratze adina gainditu duten ikasleen kasuan (16 urtetik gorakoak), ikasle-egoera ziurtatzea. Horretarako, araututako ikasketak gauzatzen ari direla ziurtatzeko matrikula-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Bergarako Udalarekin inolako zorrik ez izatea. Udalak hau ofizioz egiaztatuko du.
- 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluko debeku-kasuetan ez egotea.

5. artikulua.- Bonuen/Dirulaguntzaren banaketa

Dirulaguntza bonuen bitartez emango da.

Prozedura honakoa izango da:

1.- Udalak bere datu-basean dituen datuekin, DBE eta GLL laguntzen onuradunen zerrenda osatuko du. Errolda konprobatu eta, udalarekin zorrik duten aztertu ondoren, onuradunen zerrenda osatuko da.

2.- Udaletik gutuna bidaliko zaie zerrendako herritarrei adieraziz adin txikikoak karguan dituztenen kasuan udaletik pasa daitezkeela bonu-laguntza eskatzera (bonu-laguntzaren azalpenarekin batera). Aldi berean, Dirulaguntzen Datu base Nazionalaren bitartez bideratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argiratutako iragarkiaren bidez urte bakoitzeko deialdiaren berri

emango da. Bertan zehaztuko da gutxienez dirulaguntza hauek emateko dagoen diru-izendapena eta partida, eta eskaerak egiteko epea.

3.- Eskaera B@Z bulegoan egingo da gutuna bidaltzen denetik aurrera eta gehienez ere urte horretako urriaren 31ra arte. Azken egun hau jai-eguna balitz, hurrengo lanegunean bukatzen dela epea ulertuko da.

4.- Eskatzailea bera (DBE / GLL laguntzen titularra) etorri beharko da, eta etorri ezean haren idatzizko baimena ekarri beharko da. Indarrean duen identifikazio-agiriarekin B@Z bulegora bertaratu beharko da, eta 16 urtetik gorako seme-alabaren bat ikasten ari bada, ikasle-egoera ziurtatzeko, araututako ikasketak gauzatzen ari direla ziurtatzeko matrikula-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

5.- B@Zeko langileek konprobatuko dute eskatzailea Gizarte Zerbitzuek emandako zerrendan dagoela. Baiezkoa bada zuzenean bonu-laguntzak emango zaizkio eskatzaileari eta baita gastuak justifikatzeko aurkeztu beharko duen agiria ere. Gainera, bonuak jaso izanaren agiria sinaraziko zaio.

B@Zera doan eskatzailea zerrendetan ez badago, eskaera Gizarte Zerbitzuetara bideratuko da eta horrela adieraziko zaio eskatzaileari. Gizarte Zerbitzuetan dagozkion konprobaketak egingo dira eta onuraduna izateko baldintzak betetzen baditu, etxera bidaliko zaizkio dagozkion bonu-laguntzak.

6.- Bonu-laguntza honakoa izango da:

-12 urtetik beherako umeengatik, 100 euroko bonu-laguntza umeko.

-13-18 urte bitarteko gaztetxoengatik, 150 euro gazteko.

7.- Bonuak gastatzeko epea urte bakoitzeko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

6. artikulua.- Dirulaguntzaren justifikazioa

Laguntzen onuradunek hurrengo urteko urtarrilaren 15era arte izango dute zinpeko aitoren bidez bonu-laguntzen bidez gastatutakoa zertan gastatu duten adierazteko. Dokumentu hori, bonu bidez erositako materialaren tiketekin batera, B@Z bulegoan aurkeztu beharko da.

7. artikulua.- Onuradunen obligazioak

Dirulaguntza emanez gero, pertsona onuradunaren betebeharrak izango dira:

- a) Dirulaguntza emandako helbururako erabiltzea eta justifikatzea.
- b) Jasotako fondoak itzultzea ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.
- c) Udalari jakinaraztea, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituela, beste administrazio edo entitate nazional edo nazioarteko publiko edo pribatuetatik, beranduenera dirulaguntza justifikatzeko epea amaitzean.
- d) Udalak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea eta horietan laguntzea, indarrean dagoen legeriaren arabera, bai eta kontrol-organoek egiten dituzten beste edozein egiaztapen- eta kontrol-jarduera ere, eta jarduera horiek gauzatzean eskatzen zaion informazio guztia ematea.

8. artikulua.- Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeko aukera

Ordenantza honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu berdinak dituzten eta/edo kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten erakunde publiko edo pribatuetatik jasoko diren bestelako laguntzekin, betiere gain-finantzazioa gertatzen ez bada; kasu horretan, ordenantza honen bidez emandako dirulaguntza soberako zenbatekoan gutxituko da.

9. artikulua.- Onuradunek dirulaguntzaren xedea bete duten egiaztatzea

Udalak, egoki iruditzen zaizkion bitartekoen bidez, egiaztatu ahal izango du emandako zenbatekoak eman ziren helburuan inbertitu direla. Egiaztatuko balitz ez direla horrela erabili, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dira, eta beste erantzukizun batzuk eskatu ahalko dira.

Dirulaguntza eman duen organoak dirulaguntza behar bezala justifikatu dela egiaztatuko du, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntza ematea edo baliatzea eragin duen helburua bete dela ere; horretarako, udal departamentuak dagokion txostena egingo du.

10. artikulua. Dirulaguntzak itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta berandutze-interesak eskatuko dira (dirulaguntzaren ordainketa-egunetik itzulketaren erabakiaren egunera artekoak), baldin eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta hura garatzeko erregelamenduan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen bada, bai eta ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan ere.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta, beraz, premiamendu-bidez eskatu ahal izango dira, baldin eta itzulketa ez bada egiten zehazten diren epeetan.

Kudeaketa, ikuskapen edo kontrol funtzioak betetzean ondorioztatzen bada jasotako dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak daudela, zantzu horiek espedientean jasoko dira, eta beharrezko kautela-neurriak hartu ahal izango dira.

11. artikulua.- Itzulera-prozedura

Dirulaguntza eman zuen organoak eskumena izango du emandako zenbateko osoa edo zati bat itzul dadila eskatzeko, ebazpen bidez. Administrazioak itzulketa aitortzeko edo likidatzeko duen eskubidea lau urtera preskribatzen da.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, goragoko agindu batek eskatuta, beste organo batek arrazoitutako eskaera eginda, edo arlo horren finantza-kontrola egiteko eskumena duen organo batek eskatuta, salaketa baten bidez edo partikularrak berak egindako komunikazio baten bidez. Kontu-hartzaitzak egindako finantza-kontrolako txostenaren ondorioz ere hasiko da.

Prozedura izapidetzean, beti bermatuko da interesdunari entzunaldia emateko eskubidea.

Emandako dirulaguntza osoa edo zati bat behar ez bezala aplikatu dela egiaztatu ondoren, ebazpen arrazoitua emango du organo eskudunak. Ebazpen horretan berriaz adieraziko dira itzultzeko betebeharra sorrarazten duten arrazoiak, itzuli beharreko zenbatekoaren kuantifikazioa, eta itzultzeko modua eta epea. Halaber, ohartaraziko da ezen, aurreikusitako epean itzulketa egiten ez bada, premiamendu-bidez egingo dela.

Aurreko paragrafoan deskribatutako itzulketa-ebazpena jakinarazi ondoren, Kontuhartzailtzak bere gain hartuko ditu espedientearen izapideak, zuzenbide publikoko diru-sarreretakoko legez eta erregelamenduz aurreikusitako arauari jarraituz.

Arau-hauste administratibotzat hartu diren gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zigor-prozedura has dezan.

Itzultzeko prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea hamabi hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakiaren egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, prozedura iraungi egingo da; hala ere, jarduketak amaitu arte aurrera egin ahal izango da, eta aipatutako epea amaitu arte egindako jarduketek ez dute preskripzioa etengo.

12. artikulua.- Bermeak

Ez da udalaren aldeko bermerik eskatuko.

13. artikulua.- Dirulaguntzen aldaketa

Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bereko dirulaguntzak emanez gero, dirulaguntza emateko erabakia aldatzeko aukera egongo da.

14. artikulua.- Dirulaguntzak berrikustea

Dirulaguntzak berrikusteko, kentzeko eta itzultzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

- a) Dirulaguntza derrigorrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Dirulaguntzaren helburu guztiak edo batzuk ez betetzea.
- c) Emandako dirulaguntzaren erabilera egiaztatzeko betebeharra ez betetzea edo zuzen ez betetzea.
- d) Finantza-kontrolako jarduerak edo egiaztapen-lanak eragozteak, ukatzea edo egiten ez uztea. Ondorioz, ezinezkoa izatea alderdi hauek guztiak egiaztatzea: jasotako dirulaguntzak nola erabili diren, helburua zenbateraino bete den, beste dirulaguntzarik jaso den edo helburu berari lotutako bestelako sarrerarik edo baliabiderik ba al dagoen.

15. artikulua.- Arau-haustearen kontzeptua

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak dira Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 56, 57 eta 58. artikuluetan tipifikatutako ekintzak eta omisioak; zabarkeria hutsez egindakoak ere zigortu ahal izango dira.

16. artikulua.- Zigor-prozedura

Zigorrek jartzeko eskumena izango du, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren eta eskumenak eskuordetzan emateko egituraren arabera, eskumen hori jaso duen organoak.

Zigor-prozedura tramitatzeko, administrazio publikoen administrazio-prozedura eta zigortzeko ahalaren erabilera arautzen duten legezko eta erregelamenduzko xedapenetan xedatutakoari jarraituko zaio, bai eta dirulaguntza publikoak arautzen dituen araudian aurreikusitakoari ere.

Arau-haustek lau urteko epean preskribatuko dira, egin diren egunetik kontatzen hasita. Zigorak lau urteko epean preskribatuko dira, zigorra jarri zuen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ezartzen diren diru-isunek ez dute zerikusirik izango dirua itzultzeko betebeharrarekin, eta, kobratzeko, zuzenbide publikoko diru-sarreretarako aurreikusitako erregimen juridikoa aplikatuko da.

17. artikulua.- Zigorak

Zigorak Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 59. artikuluan eta hurrengoetan eta hura garatzeko erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera jarriko dira.

Zigorak kasu zehatz bakoitzean 38/2003 Legearen 60. artikuluan jasotako inguruabarren arabera mailakatuko dira.

18. artikulua.- Publizitatea

Emandako dirulaguntzak ez dira argitaratuko bereizita. Soilik adieraziko da zenbat ikasleei eman zaien laguntza.

19. artikulua.- Interpretazioa

Alkatetzak ahalmena izango du Ordenantza hau interpretatzeko eta aplikatzeko behar diren agindu eta argibide guztiak emateko.

20. artikulua.- Araudi aplikagarria

Ordenantza honetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua, Bergarako Udalaren udal aurrekontuaren araua, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

Azken xedapena

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost egun baliodunean sartuko da indarrean.